

1. zatia: Testuinguruaren azterketa



[Nigeria]

Landa eremuko komunitateen ongizatean aurrera eginez, Itamapako-Nigeria

Aurkibidea

1. ITAMAPAKO	3
1.1.Kokapen geografikoa	3
1.2.Klima	3
1.3.Biztanleria, historia, erlijioa eta kultura	4
1.4.Antolaketa etnikoa, politikoa eta soziala	5
2.OINARRIZKO ZERBITZUAK	8
2.1.Osasun-arreta	8
2.2.Hezkuntzarako sarbidea	8
2.3.Garraioa	10
2.4.Telekomunikazioak	11
2.5.Etxebizitza	11
3.NATURA-BALIABIDEAK ETA INGURUMENA	11
4.JARDUERA EKONOMIKOA	12
5.GENERO-HARREMANAK ETA ROLEN ESLEIPENA	14

1. ITAMAPAKO

1.1. Kokapen geografikoa

Nigeria Mendebaldeko Afrikan dago, ia 1 milioi km²-ko hedadura du, Iberiar penintsularen ia bikoitza, eta 36 estatutan banatuta dago. Herrialdearen hego-mendebaldean, Lagos hiriburu ohiaren mugan (gaur egun hiriburua Abuja da), **Ogun** estatua dago.

Ijebu-Ode Ogun estatuko hiririk garrantzitsuenetako bat da. Hiri honetan 200.000 pertsona inguru bizi dira eta 20 barrutitan antolatuta dago, horietako bat Itamapako delarik.


Itamapako Ijebu Ode hirian kokatutako barruti landatarra eta erdi-hiritarra da. Barruti honetan Yoruba herria bizi da, Nigeriako etnirik garrantzitsuenetako bat.

Itamapako barrutian 33 komunitate daude, eta Nigeriako Educational and Co-operation Society (ECS) eta Euskadiko Zabalketa GGKEk 12 urte baino gehiago daramatzate komunitate horietako 8tan herritarrekina eta tokiko erakundeekin lanean: **Irawo, Iroto, Idale, Iloti, Odonoko, Odolayora, Odoasoyin eta Abidagba**.

1.2. Klima

Ijebu-Odek klima tropikal beroa du, eta tenperatura altuak eta hezetasuna ditu urte osoan zehar. Eguneko batez besteko tenperatura 29°C eta 31°C artekoa da. Gaueko tenperaturak, oro har, leunagoak dira, 19°C eta 23°C artekoak. Hilabeterik beroenak urtarritetik martxora bitartean izaten dira, eta tenperatura epelagoak dituztenak, berriz, ekainean eta uztailean.

Euri asko egiten du Ijebu-Oden, eta urteko batez besteko prezipitazioa 1400 litro m²-koa da. Zifra hori Donostian erregistratzen denaren oso antzekoa da, urteko batez bestekoa 1.474 litro/m² baita. Euri-denboraldia apiriletik urrira bitartean da. Horrek hezetasuna handitzea dakar, eta, batzuetan, tenperatura hotzagoak: 18°C inguru. Hilabete horietan, ohikoa da ekaitz elektriko handiak eta, batzuetan, euri-jasa handiak izatea.



Beroa eta hezetasuna konbinatuta, aire zabaleko jarduerak deserosoak izan daitezke, batez ere arratsaldean eta gauean.

Azken urte hauetan, klima-aldaketaren ondorio gisa, euriteak uholdezkoagoak izan ohi dira, eta bero-muturrak nabarmenagoak.



Zuhaitzak moztea egurra lortzeko

1.3. Biztanleria, historia, erlijioa eta kultura

Nigeria Afrikako herrialderik jendetsuena da, 232 milioi biztanle ditu.

Ogun estatuak 7 milioi biztanle baino gehiago ditu, eta 16.500 km²-ko azalera, Euskadik baino hiru aldiz biztanle eta azalera handiagoa.

Ijebu Odeko biztanle gehienak gazteak dira: % 36k 14 urte baino gutxiago ditu, % 59k 15 eta 64 urte bitartean, eta biztanleriaren % 4,6 baino ez da 65 urtetik gorakoa.

Hurrengo taulan, ECS eta Zabalketa lanean aritzen diren Itamapakoko 8 komunitateetako biztanleria ikus daiteke.

	KOMUNITATEAK	BIZTANLERIA		
		GIZONAK	EMAKUMEAK	DENETARA
1	IJEBU-IRAWO	2.847	3.029	5.876
2	IJEBU-IROTO	127	135	262
3	IDALE	120	172	292
4	ILOTI	2.847	3.029	5.876
5	ODONOKO	1.725	1.894	3.619
6	ODOLAYORA	459	620	1.079
7	ODOASOYIN	12.000	15.000	27.000
8	ABEDAGBA	252	260	512
	DENETARA	20.377	24.139	44.616

“Nigeria” izena Niger ibaitik dator. Lehenago, egun Nigeria den eskualdea hainbat zibilizazio eta egitura politikoren mosaikoa zen. Iparraldean, Sokotoko kaliferria eta hausa, kanuri eta fulani herrien garapena nabarmendu ziren. Yoruba eta Benin erresumak

hegoaldean loratu ziren. Saharako basamortuan zeharreko hainbat ibilbidek Hegoaldea eta Afrika iparraldea lotzen zituzten, ondasunen, kulturaren eta ideien trukea, eta, beranduago, esklaboek salerosketa sustatuz, Amerikarako bide transatlantikoaren bidez. Konkista eta tratatuen bidez, britainiarrek euren kontrola sendotu zuten, eta 1914an Nigeria bateratu zuten.

Nigerian 50 hizkuntza baino gehiago eta 250 dialekto eta talde etniko baino gehiago daude. Britainiarrak iritsi zirenetik eta misiolari-eskolak herrialdearen hegoaldean sartu zirenetik, ingelesa bihurtu da biztanle gehienek hizkuntza komuna.

Ogun estatuan Yoruba herria bizi da, Nigeriako etnia garrantzitsuenetako bat. Talde handi honen barruan Ijebu familia dago, eta hiri nagusia **Ijebu-Ode** dute.



Ayo, Nigerian eta Afrika osoko jolas tradizionala

Historikoki, hiri honetan Ijebu dialektoa zen nagusi, baina eragin kolonialak, barne migrazioek eta tribuen arteko mestizajeak populazioa dibertsifikatu dute. Horren ondorioz, tokiko hizkeraren erabilera murriztu egin da yoruba hizkuntzaren aurrean, gaur egun hizkuntza hori baita eremu osoko hizkuntza ohikoena eta eremu arteko lotura.

Yorubak Ogun estatuko talde etniko nagusia dira eta euren kultura oso presente dago Ijebu Ode hirian; izan ere, jaialdi eta monumentu historikoek bisitari ugari erakartzen dituzte. Ospetsua da urteroko Ojude Oba jaialdia: ekitaldi koloretsua eta bizitzaz betea, non desfileak antolatzen diren, musika tradizionalaz eta dantzaz lagunduta.

Komunitate bakoitzak bere musika eta dantzak ditu une edo ekitaldi bakoitzerako, eta emakumeek eta gizonak parte hartzen dute, hala nola uztaren unea, erregeen inbestidura, ospakizun erlijiosoak edo ehorzketak, zeinek beren adierazpen artistikoa ere baduten.

Yoruba biztanleriaren artean, erlijioa oso zabalduta dago; musulmanen presentzia nagusia da eta hainbat fedetako kristauen presentzia esanguratsua da. Sinesmen tradizional animistak, hau da, naturako elementu guztiek, animaliek, ibaiek edo zuhaitzek, arima edo espiritu propioa dutela dioten sinesmenak ere badaude, batzuetan erlijio egituratuarekin konbinatuta.

Yorubek kirol autoktonoak dituzte, hala nola borroka tradizionala eta ayoa, besteak beste. Azken hori bi jokalarientzako mahai-jokoa da, non haziak edo harriak erabiltzen diren.

Gastronomiak ere garrantzi handia du yoruba herriaren artean eta bere plater tipiko batzuk hauek dira: amala, ikokore, efo riro, eta "Ikokore" jollof arroza.

1.4. Antolaketa etnikoa, politikoa eta soziala

Nigerian bi motatako gobernu-egiturak daude. Alde batetik, alderdi politikoak daude, eta, bestetik, kolonizazioa baino lehenagoko erresuma eta tribuen egituratik eratorritako antolaketa tradizionala. Bi errealitate horiek biztanleek onartzen eta errespetatzen dituzte, baina batzuetan bakoitzaren eskumenak ez daude argi edo nahastu egiten dira.

Antolaketa etnikoa

Yoruba komunitateak gizonezkoen Baale (noble edo alkate) batek lideratzen ditu, gizonezkoek bakarrik osatutako eta Baalek libreki izendatzen duen kontseilu aholkulari batekin batera. Oinarrizko gobernu-organo horrek, besteak beste, lurren eta uraren erabilerari, herritarren segurtasunari, herri-ekitaldien antolaketari, hezkuntza, trafikoa eta zabor-bilketari lotutako zerbitzuen kudeaketari eta tokiko garapen-planen diseinuari buruzko erabakiak hartzeko aginpidea eta ahalmena ditu.

Baalen Kontseilu bat ere badago. Bertan, Baal batzuk biltzen dira, eta arau edo ordenantza eraginkorrak eta lotesleak aldarrikatzen dituzte erkidego guztientzat; izan ere, gai askok (ura, saneamendua, hezkuntza, bideak...) hainbat erkidegori eragiten diete, eta, horregatik, Baalen Kontseiluak modu loteslean kudeatzen ditu. Erabakiak hartzeko maila horretan ez dago emakumerik, eta maila handiagoko Baalak, komunitate handienetakoak, Kabyesi titulua jaso dezakete, printze-tituluaren baliokidea dena.

Baalen Kontseiluaren gainetik OBA goren bat dago; hau da, lhebuen lurralde osoan gobernatzen duen errege edo AWUJALE bat. Pertsona horrek lurralde osoan du erabakitze ahalmenik handiena, nahiz eta deszentralizazio-printzipio batzuk errespetatzen diren, eta Baalek autonomia handiarekin jarduten dute beren erkidegoaren barruan.

Baalek gizarte-kontsultaren bat egiten dutenean, adin handieneko biztanleriaren parte-hartzea handia da, guztizko kopuruaren % 90 ingurukoa; baina, oro har, emakumeen parte-hartzea gizonena baino % 20 txikiagoa izaten da. Alde hori gertatzen da emakumeek espazio publikoetan duten presentzia ez delako oro har ondo baloratzen, eta askotan erabakiak hartzen diren saioak emakumeen bertaratzea errazten ez duten ordutegietan egiten direlako.

Antolaketa politikoa

Nigeria hiru mailatan antolatzen da: **Nazionala** (Federala), **Estatuetakoa** (Estatukoa) eta, azkenik, **Udalekoa**, Tokiko Gobernu Arloek (TGA) kudeatzen dutena. TGA bakoitza

presidente batek zuzentzen du (Local Government Chairman), eta buru exekutibo gisa jarduten du, normalean gainbegiratze-zinegotzien eta idazkarien laguntzarekin. Tokiko Kontseiluak zerbitzu publikoak kudeatzen ditu, hala nola osasuna eta hezkuntza, baita azpiegiturak ere, eta obra publikoez arduratzen da.

Itamapako eremuan, Ogun estatuan eta Nigerian, oro har, emakumeen parte-hartze politikoa oso txikia da (% 10etik beherakoa) hautapen-postuetan, nahiz eta emakumeak boto-emaille asko izan.

Ogun estatuak nolabaiteko irekitasuna izan duen arren, besteak beste 2019tik Ogun estatuko gobernadoreordea (Noimot Salako-Oyedele) emakume bat baita, azterlanek adierazten dute oztopo kulturalak eta estrukturalak agerikoak direla oraindik eremu horretan.



Bilera komunal, non emakumeak presente dauden, baina hitzik eta botorik ez duten

Ogun estatuko gobernuak Agindu Exekutiboak sinatu ditu, izendatutako karguetan emakumeen ordezkari % 35era iristen saiatzeko, eta horrek emakumeen presentzia hobetu du idazkari iraunkor edo aholkulari berezi izateko izendapenetan, baina ez hainbeste hauteskundeetan.

Ogun Estatuko parte-hartze politikoari buruzko tokiko datuen arabera, 2024an, zeuden 41 kargu politikoetatik 9 (% 22) emakumeek betetzen zituzten.

Gizarte-antolamendua

Itamapakon jarduten duten gizarte zibileko erakundeak landa-garapenera, ahalduntze komunitarioa, genero berdintasunera eta tokiko gizarte zibila indartzera bideratuta



Emakume batek urrundik begiratzen dio bere komunitateari eta etorkizuneko planei buruz hausnartzen du

daude batez ere. Horietan emakumeek parte hartzen dute, diruzaintzako, idazkaritzako edo ondoko lehendakariatzako karguen % 30-40 betetzen baitute.

Erakunde horietako batzuk dira Women Cassava Processors Cooperative, Ijebu Women Association eta Rural Mothers "Initiative of Ogun, eta Itamapakon presentzia dute.

EMAKUMEEK PARTE-HARTZE SOZIAL ETA POLITIKORAKO DUTEN ESKUBIDEAN IDENTIFIKATZEN DITUZTEN OZTOPOAK:

Baliabide/autonomia ekonomikorik eza. Tokiko politikan zerbait lortzeko, funts batzuk eskuratu behar dira, hautagaien ikusgarritasuna ziurtatzeko eta proposamenak ezagutarazteko.

Emakumeek bakarrik betetzen duten **ugalketa- eta zaintza-rolak** eragotzi egiten du etxetik alde egitea edo ekitaldi politikoetara joatea.

Pertzepzio soziala. Askok politika maskulinoztat hartzen dute oraindik ere, eta, normalean, erresistentzia eta indarkeria politiko moduan agertzen da: kanpainetan indarkeriari beldurra izateak emakumeen parte hartzea eragozten du.

Prestakuntza politikorik eza, bai komunikatzeko, irakurtzeko eta idazteko trebetasunetan, bai Zuzenbide Estatuaren printzipioen ezagutzan.

Genero-indarkeria. Emakumeen ia herenak jasan du indarkeria fisikoa bizitzako uneren batean, gehienak senarren esku. Emakume banandu, dibortziatu edo alargunek ezkontuek baino bi aldiz aukera gehiago dituzte erasoak jasateko. Horren arrazoia da ezkontideen babesik eza, kalteberatasun ekonomiko handiagoa eta estigma soziala pairatzen dutela bikotekide egonkorrik ez duten emakumeekiko.

Laguntza-rola versus lidergo-rola: sarritan, inguruko emakumeek gehiago jarduten dute botoak mobilizatzen edo elkarteetako buru gisa, politikan goi-mailako karguak lortzeko hautagai gisa baino.

Laburbilduz, Itamapakon eta inguruetan emakumeak hauteskunde-prozesurako eta garapen komunitariorako funtsezkoak diren arren, botere-postu politikoetara iristea egitura tradizionalen eta baliabide ekonomikorik ezaren aurkako borroka da oraindik ere.



2. OINARRIZKO ZERBITZUAK

2.1. Osasun-arreta

Itamapakok osasun zentro publiko bat du, “Itamapakoko Lehen Mailako Osasun Zentroa” izenekoa, eta osasun zentro pribatu bat, “Abidagbako Osasun Zentroa” izenekoa (Emakumeen Batzordea - Hezkuntza Lankidetzarako Gizartea buru duen proiektua). Bi zentro horietan lehen mailako arretaz eta zerbitzu kliniko berezi batzuez arduratzen dira, hala nola gaixotasun kutsakorrek eta ez-kutsakorrek, familia-plangintza, jaio aurreko arreta, nutrizioa eta osasun arloko heziketa, besteak beste.

Itamapakon, eta, oro har, Ogun estatuko landa-eremuetan, osasun-arretan muga batzuk daude, osasun-langile gutxi daudelako, lan egiteko erabiltzen diren ekipoak zaharkituta daudelako eta aurrekontu publikoa ez delako nahikoa. Arreta espezializatuagoa behar izanez gero, hurbilen dagoen ospitale publikora joan behar da: Ijebu-Ode hiriko State ospitalera. Itamapakotik 20-25 km-ra dago.

Ijebu-Oden ospitale publiko hori dago, baita hainbat klinika pribatu ere. Sarbide ekonomikoa etxeko diru-sarreraren eta estatuko programen araberakoa da; beraz, doako aseguru unibertsalik ez dagoenez, familia askok zentro publikoak, klinika pribatuak eta akordio informalak konbinatzen dituzte.

Ijebu Odeko arreta medikoaren kostua eskuragarria da, Nigeriako beste hiri handiago batzuekin alderatuta. Larrialdi zerbitzuak ere garatzen ari dira, eta horien abiadura eta eraginkortasuna hobetzeko ahaleginak egiten ari dira.

2.2. Hezkuntzarako sarbidea

Taulak erakusten digu, alde batetik, nesken eta mutilen matrikulazioa nahiko parekoa dela lehen hezkuntzan; hala ere, ikasle-irakasle ratioa oso txikia da: irakasle gutxi daude. Ogungo gobernua irakasle gehiago kontratatzen saiatu da duela gutxi, baina banaketak desparekoa izaten jarraitzen du, hiriguneei mesede egiten baitie Itamapako bezalako komunitateen aldean.

Ogungo beste landa-eremu batzuetan bezala, lehen mailako eskola publiko askok hondatutako azpiegiturak dituzte. Eraikinek sabaiak kaltetuta dituzte, eta oinarrizko altzariak falta dira (ikasmahaiak eta aulkiak). Hori dela eta, ikasleek batzuetan baldintza prekarioetan eman behar izaten dituzte eskolak.

Ikastetxeetan edateko ura eta saneamendua (komunak) eskuratzeko aukera mugatua da, eta horrek neskatoen bertaratze-mailari eragiten dio bereziki.

Lehen hezkuntza doakoa den arren, “ezkutuko kostuak” (uniformeak, liburuak, eskola-materialak eta tasa komunitarioak) direla eta, baliabide gutxiko familiek seme-alabak ateratzen dituzte, familiari ekonomikoki laguntzeko, batez ere merkataritza-lanak eginez, eta alabei nekazaritza-lanetan laguntzeko.

Itamapako landa-ingurunean, baliabide gutxi dagoenez, familia askok lehentasuna eman behar diote semearen hezkuntzari, biren uniforme edo tasak ordaindu ezin dituztelako.

Gero eta kezka handiagoa dago alfabetatze funtzionalaren mailari buruz: lehen hezkuntza amaitzen duten ikasleen zati batek zailtasunak ditu erraz irakurtzeko eta idazteko.

Itamapakoko bigarren hezkuntzari dagokionez, nesken eta mutilen arteko parekotasuna desagertzen da, eta hezkuntza-mailetan aurrera egin ahala, arrakala handitzen doa, emakumeen matrikulazioa eta asistentzia murriztuz, eta, gainera, nesken abandonutasak gora egiten du.

Eskolatzeari uztearen eta absentismoaren faktoreak desberdinak dira generoaren arabera:

mutilak ez dira klasera joaten nekazaritzan edo beste sektore batzuetan lan egiteko, familiari berehalako diru-sarrerak emateko, eta askok bigarren hezkuntza uzten dute goi-mailako zikloa amaitu aurretik, tailer mekanikoetan edo merkataritza informalean ikastun gisa hasteko. Horren ondorioz, kualifikazio txikiko lanetan harrapatuta geratzen dira, hezkuntza-sistemara itzultzeko aukerarik gabe.

KOMUNITATEAK	ESKOLA	MUTILAK	NESKAK	DENETARA	MAISUA	ANDEREÑOIA	DENETARA
IJEBU-IRAWO	St. Anne	50	70	120	1	4	5
IJEBU-IROTO	St. Aloysius, Iloti	90	66	156	5	16	21
ABEDAGBA		80	77	157			
ILOTI		157	80	237			
IDALE	Gobierno Local, Idale	32	25	59	0	4	4
ODOLAYORA		26	30	56			
ODONOKO	San José, Odonoko	63	67	130	1	4	5
ODOASOYIN	San Andrés	150	230	380	3	11	14
DENETARA		650	645	1295	10	39	49

Hezkuntza-maila	Matrikula		Uzte-tasa (Urtero)	
	Mutilak (%)	Neskak (%)	Mutilaks (%)	Neskak (%)
Bigarrenkoa Junior (12 años)	51%	49%	< 5%	< 5%
Bigarrenkoa Junior (14 años)	53%	47%	12%	12%
Bigarrenkoa Senior (17 años)	58%	42%	15%	22%

Neskei dagokienez, lehen arrazoietakoa bat etxeko kargak dira: etxean eta anai-arreba adingabeen zaintzan laguntzea espero da, eta horrek aldizkako absentismoa sortzen du, haien errendimendua oztopatzen duena. Beste arrazoietakoa bat ezkontza eta haurdunaldi goiztiarra da: landa-eremuetan, Itamapakon esaterako, behin betiko uzteko arriskua handitu egiten da bigarren hezkuntzako goi mailan, nahi ez diren haurdunaldiengatik edo ezkontzarako presioagatik. Gainera, landa-eskoletan osasun-instalazio egokirik ez izatea da eskolatzeko beste oztopoetakoa bat, eta, horren ondorioz, neska askok ez dira eskolara joaten hilekoa dutenean, eta, ondorioz, hilekoaren pobrezia sortzen da.

2.3. Garraioa

Itamapakon, jendeak hainbat garraio mota konbinatzen ditu, distantziaren eta aurrekontuaren arabera:

motozikletak dira garraiorik azkarrena eta arruntena. “Last mile” (azken zatia) izenez ezagutzen den zatirako erabiltzen dira, hau da, etxeko atetik autobusak igarotzen diren errepide nagusiraino joateko.

Gainera, motor horiak daude, 3 edo 4 pertsonarentzako atzeko kabina dutenak. Taxi pribatu bat baino merkeagoak dira eta itzala eskaintzen dute, beraz, hiri barruan edo inguruko auzoen artean mugitzeko gogokoenak dira.



Motozikleta bat Itamapakoko komunitateek komunikatzen dituzten pistetan zehar

Minibus eta taxi partekatuak distantzia luzeagoetarako erabiltzen dira, adibidez, Itamapakotik Ijebu-Oderantz edo Lagosekiko mugetarantz joateko.

Ogun estatutik igarotzen da Lagos-Ibadan tren-linea modernoa. Herri bakoitzean garelekuak ez duen arren, klase ertaineko familia askok bidaia luzeetarako erabiltzen dute, bere segurtasunagatik eta aire girotuagatik.

Ogungo gobernuak autobus zahar eta zaratsuen ordezkari gisa naturaleko autobus berriak (CNG) jartzen ari da, kutsadura eta erregaiaren kostua murrizteko.

Errepideei dagokienez, autobide berri handiak egiten ari dira, hala nola Ijebu-Ode eta Epe hiria lotzen dituenak, kalitate bikainekoak.

2.4. Telekomunikazioak

Itamapako komunitatea landatarra da, baina komunikazio bide estrategiko batetik gertu dago: Ijebu-Ode – Epe autobidea. Horri esker, telekomunikazio-enpresek errepikapen-dorre gehiago instalatu dituzte inguruan, eta seinalea hobetu dute Itamapakoko saltoki eta nekazari-familiarentzat.

Itamapakon, Nigeriako toki gehienetan bezala, ez dago telefono finkoko linearik. Mundu guztia gailu mugikorren bidez komunikatzen da, eta estaldura nagusia 4G da Internetaren kasuan, nahiz eta datu mugikorren prezioa altua den inguruko batez besteko diru-sarrerekin alderatuta.

Sare elektrikoa ezegonkorra da, eta argi-mozketak ohikoak dira; horregatik, telefoniako antenek gasolio sorgailuekin edo eguzki panelekin funtzionatzen dute. Gailuak kargatzeko, biztanle askok eguzki-plaka txikiak erabiltzen dituzte beren etxeetan, edo tokiko “karga postuetara” joaten dira beren telefonoak erabili ahal izateko.

2.5. Etxebizitza

Solairu bakarreko etxebizitza da nagusi, zementuzko eta hareazko blokeekin eraikia, eta sabairako aluminio galbanizatuzko edo zinkeko xaflak erabiltzen dira, eurite tropikal handiekiko erresistenteak baitira.

Nigerian, zerbitzu publikoak irregularrak izan daitezke, eta, beraz, etxeek ur-tanga bat dute. Ura putzu propio batetik ateratzen dute ponpa elektriko baten bidez. Energia hornitzeko, gasolina edo diesel sorgailu bat izaten dute (sare elektrikoak huts egiten duenerako), eta gero eta eguzki-panel gehiago ikusten dira teilatuetan.



Itamapakoko landa-komunitateetak

3. NATURA-BALIABIDEAK ETA INGURUMENA

Nigeria aberatsa da baliabide naturaletan, eta petrolio eta gas naturaleko erreserba handiak nabarmentzen dira, horiek baitira diru-iturri nagusia. Erregai fosilez gain, herrialdeak mineral-hobi garrantzitsuak ditu, hala nola eztainua, ikatza, bauxita eta urrea.

Baso zabalak ere baditu, Afrikako manglar zabalena barne, baita nekazaritza-lur emankorrak ere, besteak beste mandioka, ñamea eta artoaren ekoizle nabarmena da.

Nigeriak ur-baliabide ugari ditu, baina uraren kudeaketa eta kutsadura arazo nabarmenak dira eskualde batzuetan.

Ogun Estatua bere natura aberatsagatik da ezaguna, batez ere bere oihan tropikalagatik, Omoko Biosfera Erreserba hartzen duena, 130.500 hektareako eremua, lur uhindua



Landaredi hostotsua Itamapakon

eta laua duena. Gainera, estatuak Ogun ibaiaren izena dauka, Lagos aintzirara isurtzen den ibai-bide garrantzitsua, eta yoruben goiko lurretatik kostaldeko lautadara jaisten den orografia du ezaugarri.

Ingurumen-arazo nagusietako batzuk dira, batetik, egurra lortzeko baso-soiltzea, eta, bestetik, lurra beste erabilera batzuetarako garbitzea, hala nola nekazaritzarako edo urbanizaziorako. Populazioaren hazkundeak eta zuraren, egurraren eta nekazaritza-lurren eskaera gero eta handiagoak eragin dute egoera hori. Horrek ekosistemen oreka naturala aldatzen du, eta higadura, biodibertsitatearen galera eta tokiko klimaren aldaketak eragiten ditu. Edateko ura eskuratzeko aukera ere murrizten du, eta uholdeak izateko eta lurra irristatzeko arriskua handitzen du.

Itamapakon ia ez dago zaborra biltzeko zerbitzurik, eta halakorik dagoenean, ez dago ondorengo kudeaketa-sistematik. Horrela, hondakinak erretenetan pilatzen dira eta ur-ibilguak kutsatzen dituzte. Bestalde, herritarrek ere kutsadura areagotzen dute, hiri-hondakinak bide publikoan uzten baitituzte.

Ez dago eskolako eta komunitateko oinarritzko saneamenduaren kudeaketa egokirik. Ia ez dago komun-sistematik, eta biztanleak aire zabalean libratzen dira. Hori gaixotasun infekziosoak transmititzeko eta akuiferoak kargatzeko eremuetako kutsadura-bektoreetako bat da. Pertsona gehiago biltzen diren eremuetan, hala nola landa-eskoletan, arazoa benetan larria da, eta osasun-arazoari gehitu behar zaio neskato eta gazteen segurtasunaren arazoa, ez baitituzte aurkitzen beren gorputz-premiak eta hilekoaren higiene-premiak pribatutasunez kudeatzeko gutxieneko espazioak, eta horrek, praktikan, areagotu egin du emakumeen aurkako sexu-indarkeria.

Erregaiak banatzeko sareak eremu geografiko zabaletan zehar hedatzen dira, erauzketa-eremuetatik findegietara edo banaketa-zentroetara. Talde antolatu batzuek legez kanpoko zulaketak egiten dituzte erregai lapurtzeko, eta maiz gertatzen dira isuriak, eta mangladietako ekosistemei eragin eta eremu zabalak kutsatzen dituzte.

4. JARDUERA EKONOMIKOA

Ijebu-Odek leku historiko, kultural eta ekonomiko esanguratsua izaten jarraitzen du. Gaur egun, hiri hau ezaguna da Nigeria osoan industrialde gehien duen eremuetako bat delako. Horrek herrialdeko manufakturararen erdigunea izatearen ospea ekarri dio, non ondasun eta produktu asko ekoizten diren.

Itamapako, bestalde, landa-eremua da batez ere. Nekazaritza-ekoizpena tuberkuluak (juka eta ñame) eta bananoa ditu oinarri, besteak beste. Halaber, anakardo ugari ekoizten dira.

Nekazaritzaren esparruan, jarduerak genero-rol oso markatuek egituratzen dituzte: juka lantzea emakumeen lantzat hartzen da, eta ñamea, berriz, gizonek kudeatzen dute. Errealitate hori da emakumeak familiaren baliabide ekonomikoen gaineko nolabaiteko

kontrola lortzeko duen zailtasunaren oinarria; izan ere, juka beti dago bideratuta familiaren kontsumora, eta ñamea, berriz, tokiko merkatuan saltzen da. Gainera, jukak eskuz prestatzeko lan handia eskatzen du, ordu asko eskatzen ditu, eta ñameak, berriz, ez du ia prestakuntzarik behar uzta bildu ondoren.

Lanaren antolaketari dagokionez, gizonak gehiago arduratzen dira lurra prestatzeaz, eta emakumeak, berriz, nabarmenagoak dira uztaren ondorengo jardueretan. Oro har, emakumeek gizonek baino lan-karga handiagoa dute; izan ere, ikus daitekeenez, nekazaritza lanaren zati batean aritzen dira, baita etxeko lanetan ere, zaintza-lanetan.

Tokiko gizartea nagusiki patriarkala denez, landa-eremuko emakumeak herentziatik eta leinutik kanpo geratzen dira, eta, ondorioz, gurasoen eta bikotekideen mende geratzen dira lurra jasotzeko. Legeak eskubideak ematen badizkie ere, praktikan gizonezkoen egitura tradizionalak mugatu egiten dute eskubide horiek benetan baliatzea.

Emakume batzuek nekazaritzako zeregin espezifikoak kudeatzen badituzte ere, baliabide ekonomikoetarako aukerarik ez dutenez, ezin dituzte pertsonak kontratatu laguntzeko, ustategien tamaina murriztuz eta emakumeen lana eraginkorra ez delako ikuspegia indartuz. Gizonek, ordea, aldi baterako eskulana kontrata dezakete lurra prestatzeko eta uzta biltzeko, eta hori ohikoa da ñame-baserrietan.

Itamapakon, usadioak emakumeei lurraren jabetza eta kontrola aitortzen ez dien arren, emakumeek zeregin erabakigarria dute, batez ere elikagaien ekoizpenean eta prozesamenduan. Nekazaritzako eskulanaren % 86 eratzen dute, eta komunitateen elikadura-segurtasuna bermatzen dute.

Atlantikoko kostaldetik eta Lekikiko mangladietatik hurbil dagoenez, arraina tokiko ekonomiaren eta dietaren parte ere bada. Artisau-arrantza eskala txikian eta marjina txikiarekin egiten da, zurezko ontzi txikiak erabiltzen dituztelako; izan ere, ez dago bestelako ontzi handiagoak har ditzakeen portu-azpiegiturarik edo oinarritzko babeslekurik. Bestalde, ontzi xume eta apal horiek eragotzi egiten diete marea eta olatu handietan arrantzatzea, edo urrutiago dauden arrantza eremu aberatsagoetara joatea.



Mujeres recolectando yuca

Inguru horretan musulmanen presentzia nabarmena dela kontuan hartuta, txerriak haztea ez dago baimenduta, eta abeltzaintza txikia oilaskoetan eta ahateetan oinarritzen da, landa-erabilera eta errendimendu txikia duela.

Era berean, garrantzitsua da azpimarratzea emakumeek ordaindutako lanean duten parte-hartze tasan dagoen arrakala esanguratsua: % 25 eta % 75 artean soilik jasotzen du ordainketa ekonomiko bat. Desparekotasun horren ondorioz, emakumeek autonomia ekonomiko txikiagoa dute.

5. GENERO-HARREMANAK ETA ROLEN ESLEIPENA

2024an, **Nigeria** 146 herrialdetatik 125 postuan zegoen emakumeen berdintasunaren eta eskubideen arloan. Horrek esan nahi du munduan genero-desberdintasun handiena duten 25 nazioen artean dagoela.

Oro har, ezkontzarekin, dibortzioarekin eta jaraunspen-eskubideekin lotutako legeek eta ohiturek joera maskulino handia dute. Landa-eremuko emakume gehienak oso goiz ezkontzen dira. Landaguneetan, hala nola **Itamapakon**, kalkulaten da, batez beste, ezkontzen diren pertsonen erdia baino gehiago 15 urtetik beherako emakumeak direla, eta 18 urtetik beherako emakumeen ia % 80 ezkontuta dagoela jada. Horietako askok goizegi dituzte seme-alabak, eta horrek haurdunaldiarekin hiltzeko arriskua handitzen du.

Emakume bakoitzak 5 eta 6 seme-alaba artean izaten ditu, eta ez daukate prestakuntza nahikorik.

Monogamiak eta dibortzioak gora egin dute, baina landa-eremuetan eta musulmanen artean, poligamiak oso ohikoa izaten jarraitzen du. Proiektuaren eremuan, ezkontutako emakumeen % 45 etxe poligamoetan bizi direla kalkulatu da.

Nigeriako genero-indarkeria, eta zehazki Ogun estatuan, erronka sozial konplexua da, non zifra ofizialak “icebergaren punta” baino ez diren, estigma eta isiltasunaren ondorioz.

Hauk dira 2025aren amaieran eta 2026aren hasieran eguneratutako daturik berrienak eta esanguratsuenak: **Ogun** Emakumearen Gaietarako eta Gizarte Garapenerako Ministerioaren zifra ofizialen arabera, 2025ean genero indarkeriako 502 kasu kudeatu



Emakume-talde bat iritzia emateko aukerarik gabeko bilera komunal batean



Emakume gazte bat bere haur jaioberria zaintzen

ziren formalki. Nazioarteko erakundeek arabera, Ogun estatuan etxeko indarkeriaren 15.000 kasu inguru daude urtean. Horrek esan nahi du kasuen % 3,3 baino ez dela formalki jakinarazten. 502 kasu ofizial horietatik, 2025ean, 28 bakarrik prozesatu ziren formalki auzitegietan, eta horrek sistema judizialaren geldotasuna islatzen du.

Nigeria Emakumearen Aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioaren (CEDAW) parte da, baina, aldi berean, Nigeriako landa eremuko emakumeen proportzio handi bat, besteak beste Emakumeen Mutilazio Genitala (EMG) praktika tradizionalaren mende dago oraindik.

Nigeriako Justizia Ministerioak 2021ean “Sexu eta Genero Indarkeriari Erantzuteko Unitatea” (VSG/Generoa) ezarri zuen, kasu horiei erantzuteko ekintzak, legeak eta gobernu politikak koordinatzeko.

2022ko otsailean, Senatuak (gehiengoa gizonezkoak dira) uko egin zion Kongresuko emakume talde batek aurkeztutako “Genero Berdintasunerako Legearen” proposamenari.

Nigeriako Gobernuaren Emakumearentzako Plan Estrategikoaren helburua emakumea aukera-berdintasunaren ikuspegitik erabat integratzea da, herrialdeko bizitza ekonomiko, sozial, politiko eta kulturalen parte hartzeko duen gaitasuna indartuz.

Helburu hori neurri hauen bidez lortu nahi da:

- ➔ Ordezkaritza parekidea: postu guztietan emakumeen parte-hartzea gutxienez % 30ekoa dela ziurtatzea.
- ➔ Nazioarteko lege-esparrua: Emakumearen Aurkako Diskriminazio Mota Guztiak Ezabatzeari buruzko Konbentzioa (CEDAW) legeria nazionalean sartzea.
- ➔ Praktika kaltegarrien aurkako babesa: emakumeen genitalen mutilazioa eta beste tradizio kaltegarri batzuk legez abolitzea.
- ➔ Zeharkako genero-ikuspegia: genero-ikuspegia politika eta programa guztietan txertatzea.



Neskak eta mutilak oinez eskolara doaz

- ➔ Ahalduntze ekonomikoa: mikrofinantzaketarako eta pobrezia murrizteko programetarako emakumeen sarbidea erraztea.
- ➔ Osasuna eta ongizatea: hezkuntza eta mobilizazioa sustatzea, emakumeek GIBarekiko eta sexu-transmisiozko beste gaixotasun batzuekiko duten zaurgarritasuna murrizteko.
- ➔ Hezkuntza-aukerak: gazteek bigarren hezkuntzan eta batxilergoan jasotzen duten hezkuntza indartzea, beren etorkizunerako aukera gehiago eta hobeak izan ditzaten, eta ikasteko eta trebetasunak garatzeko aukerak ematea hezkuntza-sistema formalean ikasten ari ez diren emakumeei.

Beste informazio-iturri batzuk

Educational Co-operation Society (ECS): <https://ecs.org.ng/>

Giza Eskubideetarako eta Gizabidezko Hezkuntzarako Baliabideen Zentroa: <https://chriced.org.ng/>

Nigeriako Gobernuaren zerbitzuak: <https://services.gov.ng/>

Ogungo estatuko gobernuak: <https://ogunstate.gov.ng/>

Larrialdiak Kudeatzeko Agentzia Nazionala: <https://nema.gov.ng/>

Ingurumen Ministerio Federala: <https://environment.gov.ng/>



Itamapakoko kale bat

Eraldaketa EkoSozialerako Hezkuntza-proiektuaren barruan landutako materiala, “Euskadiko LHko ikasleak tokiko eraldaketa ekosozialerako eragile gisa” izenburupean.

Dokumentu hau “Itamapakoko (Nigeria) landa-eremuko emakumeen ahalduzko komunitarioa sustatzen aurrera eginez” (AVCS, PRO 2023K1/003) proiektuan jasotako informazioan oinarrituta egin da. Proiektu hori Educational Co-operation Society - ECSk eta Zabalketa Elkartek garatu dute, eta Eusko Jaurlaritzaren Lankidetzak eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren kofinantzaketa izan du.

Egilea_Asociación Zabalketa de Cooperación y Desarrollo eta Educational and Co-operation Society (ECS)
Argazkiak_Aner Etxebarria
Diseinua_Seteseito
Itzulpena_Bakun
Cofinantziazioa_Eusko Jaurlaritza, Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia
L.G. BI 1002-2026

Dokumentu hau Zabalketaren web orrian dago: www.zabalketa.org gastelaniaz eta ingelesez

Zabalketa Elkartea
Andres Larrazabal kalea 3, 2. Ezkerra, 48930 Getxo
Telefona: 94 464 36 94 – 94 608 98 04